

KOSTUEN EGITURA

Guztiok gara kontziente, enpresa bat aurrera eramateak hainbat gastu suposatzen dituela. Gure kasuan, tailer eta hitzaldiak ematen ditugu eta zerbitzu hori aurrera eramateko hainbat beharrezko material erabiltzen ditugu, guztia ondo atera dadin. Esaterako, beharrezkoak ditugu psikologoak, eta horiek zerbitzua ematearen truke guk ordaindu egiten diegu. Hasiera batean psikologoak ez dute taldearen parte egingo, hau da **kontratatu egingo ditugu** baina denbora pasa ahala eta guztiak ondo funtzionatzen badu, taldekide bihurtuko ditugu eta enpresako bazkide bihurtu daitezke.

Ez hori bakarrik, hitzaldi eta elkarrizketa horiek aurrera eramateko, ikastetxeekin komunikatzeko mugikorrek eta ordenagailuak behar ditugu eta material horiek erosi egin behar dira eta gastu bat suposatzen du.

Baita garraioa, ikastetxeetara joateko; esate baterako enpresako auto bat. Zenbat eta kilometro gehiago orduan eta gastu gehiago suposatzen du autoak.

Web-orria sortzeak ere gastuak ditu. Izan ere, web-orria bera dominatzea, sortzea, diseinatzea... horretarako enpresa bat kontratatuko dugu hasierako lana egiteko eta ondoren, webgunearen mantenua guk egingo dugu.

Kostuak **finkoak** eta **aldakorrak** izan daitezke. Lehen aipatu bezala, gure kostu gehienak aldakorrak dira, izan ere ekoizpenarekin zuzenean lotura dute: garraioa, ikastoletan erabiliko dugun materiala...

Psikologoaren kasuan, finkoak eta aldakorrak biak izan daitezke; izan ere **kontratu luze eta irakunkor** bat egiten badiegu kostu finkoak izango dira, kontrara psikologoak **zerbitzu zehatz baterako** ordu batzuk bakarrik kontratatzen baditugu, kasu horretan kostu aldakorra izango litzateke. Hasiera batean dauzkagun proiektuen arabera orduka kontratatuko ditugu, beraz, kostu aldakorra izango da psikologoenak.

Bestalde, gure enpresako kostu finkoak ordenagailuak erta mugikorrek izango liratezke. Mugikorren kasuan **tarifa finkoak** ezarriko ditugu.